

Xabier Barandiaran

Ataun, 1969. Soziologoa. EAJko Markel Olano Diputatu Nagusiaren Kabineteko burua da. Gipuzkoako Aldundiaren *Herritarren partaidetza* liburuaren editorea. Erakunde hau lantzen ari den “kultura politiko berria lidergo elkarbanatuaren testuinguruan” lemaz jardun dugu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Herritarrek interes partikularren defentsan ikusten dituzte politikoak»

Legealdi hasieran estrategia berria abiatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ekimena kultura politiko berri baten aldeko testuingurua indartzera zuzenduta dago. Xabier Barandiaranek laburbildu dizkigu ekimenaren printzipioak: “1. Erakundeen arteko lankidetzak lidergo partekatuan lantzea. 2. Erakunde pribatuaren eta publikoaren arteko lankidetzak sustatzea, gobernantza eredu baten baitan. 3. Herritarren partaidetza sustatzea, euren parte-hartzea areagotzeko eta eurekiko komunikazio zuzenagoa eta estuagoa lortzeko”.

“Herritarren partaidetza sustatzeko hainbat ekimen abiatu dira jada: bai udaletan —azterketak teoriko bidez— bai Foru Aldundian esperientzia pilotuak martxan jarritz. Halaber, Udako Unibertsitatearekin Ikastaro bat egiten dugu urtero. *Herritarren partaidetza* liburua iaz egindakoaren emaitza da”, diosku gure solaskideak.

Abiaturuan, egiguzu arren, Gipuzkoako egoera politikoaren erradiografia orokor bat.

Gipuzkoa anitza da eta fragmentazio politiko handia dago. Zatiketa horrek, neurri batean, lurraldearen garapena eragozten du. Aniztasun politikoak ona da, baina aniztasuna zatiketa bihurtzen denean arazoa serioa da. Hala izan arren, gure ustez, gauza batzuk partekatu ahal ditugu alderdi politikoaren artean. Gauza batzuetan ados jarri gaitezke. Hau da, alderdiek herri ikuspegi ezberdina izateak ez du Gipuzkoak uneon dituen erronka estrategikoen inguruan akordioa eragotzi behar, edo krisi ekonomikoaz gutxienezko adostasuna lortzeko oztopo izatea. Horiek lortzeko baina, Gipuzkoak kultura politiko berria behar du.

Gipuzkoa, indartsua eta ahula ageri da aldi berean.



Xabier Barandiaran

"Foru arau berri bat proposatu nahi dugu Batzar Nagusietan, gobernantza eredua indartzeko eta bereziki herritarren eta erakundeen arteko komunikazioa sustatzeko".

baloreak ez zaizkie herritarrei gustatzen, herritarrak eta politikariak urruti daude elkarrengandik. Horiei guztiei Europan ematen ari diren gizarte aldaketak eta Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa gehitu behar zaizkie. Gatazka politikoa distantzia hori areagotzen du.

Erakunde publikoen eta pribatuen artean lidergo partekatua garatzea duzue helburu.

Gipuzkoa bezalako proiektu bat ezin dela erakunde publikoetatik bakarrik eraiki diozue.

Lidergo partekatuan inguruan bi atal daude: Gipuzkoako Foru Aldundiak kolaboratu eta lan egin behar du udalekin, eta noski, Eusko Jaurlaritzarekin ere bai. Nahiz eta beste erakundeetan beste kolore bateko alderdi politikoez zuzendua eta lideratua izan, Gipuzkoarako erronka estrategikoa diren horietan gutxienez, Foru Aldundiak lankidetzan aritu behar du beste erakundeekin.

Lidergo partekatua beste erakundeekin elkarlanean garatu daiteke erabat? Den-dena ez. Baina, gutxienez gipuzkoarrentzat estrategikoak eta komenigarriak diren gaietan bai. Lidergo partekatua gizarteko beste

"Komunikabideen dependentzia ildo politikoetara lerratzen denean, iritzi publikoaren eraikuntza ahultzen da"

eragile batzuekin ere landu behar da, eta horretan ere, gure gobernantza eredua aldatu behar da. Alegia, gaur egun, herrigintza ezin da bakarrik egin erakunde publikoetatik, herrigintzaren eredian lankidetzara publiko/pribatua funtsezkoa da.

Hori lantzeko, komunikabideen logika informatzailea oztopo dela esaten da liburuan.

Komunikabideak iritzi publikoaren eraikuntzan agente klabeak dira, dudarik gabe, komunikabide handiek —zehatzago esanda— jokatzen duten rolak ildo politiko batzuei erantzuten die. Beraz, komunikabide independenteen eredura jo beharra daukagu. Hain zuzen ere, iritzi publikoa modu demokratikoan eraiki nahi baldin bada, komunikabide horiek ez dute menpekotasun politikoa izan behar.

Zer eskatu behar zaie hauei?

Independentzia eta profesionaltasun gehiago. Dena den, menpekotasun hori izateak ez du esan nahi komunikabide horiek ez dituztela balore batzuk, ez dutela estrategia propio bat. Baina nire ustez, komunikabideen dependentzia ildo politikoetara lerratzen denean, iritzi publikoaren eraikuntza ahultzen da.

Erakundeen eta herritarren arteko hostasun politikoa da liburuan azpimarratzen den beste puntu bat.

Hostasun politikoa begi-bistakoa da. Gipuzkoan hostasun politikoa hiru arrazoi ditu. Lehena: gizarte indibidualistan politikaren pribatizazioa eman da. Bigarrena: politikagintzan nagusitu diren baloreak ez dira egoikiak. Herritarrak oso kritikoak dira balore horiekiko, herritarrek politikoak beren interes partikularren defentsan ikusten dituzte, ez denon interesen defentsan. Politikarien arteko hika-mika asko ikusten dute. Beraz, politikagintzan nagusitzen ari diren balioetan arazoak daukagu. Hirugarrena: gatazka politikoa asperdura sortu du herritarrengan.

Horri aurre egiteko nahiko al dira aipatu dituzun printzipio horiek lantzea?

Ez. Ez da nahikoa herritarrek partehartzeko sistema artikulatzea, krisia sakonagoa da. Egoerak erakundeen eta herritarren arteko komunikazioa

Gipuzkoaren indar gunea bere ekimen maila da. Lurralde aberatsa da ekimenetan, garapen ekonomiko eta sozial handiak ditu, baita garapen kulturala ere. Gainera, bere lurralde ingurua oso orekatua da. Abantaila handiak ditu, herritarren kultura eta ekimenerako, eta hori oso inportantea da. Aldiz, gure arteko zatiketa politikoa gehiegizkoa ahul gunea handia da. Horrek alderdi politikoen artean beharrezko den oinarritzko komunikazioa eragotzi egiten du.

Herritarren partaidetza liburuan aditu askoren iritziak bildu dituzue. Hona ikaspen bat: oinarritzko azterketa egin ondoren, kultura politikoko garai berri honetan, herritarrak urrutiegi daude erakundeetatik. Horra oinarritzko paradigma bat. Azalduiguzu hori.

Gizarte industrial aurreratuetan izan diren eraldaketa sozialek gizartea indibidualista izatera eraman dute. Horrek, batetik, herritarren eta politikoen arteko harremanetan eraginik izan du. Bestetik, badaude ere beste arrazoiak: uneon politikarien arteko harremanetan arautzen ari diren

“Gure sistema demokratikoa indartzeko ezker abertzaleak barruan egon behar du”

Euskal gatazka politikoaren arloan “herritarren partaidetza” aztertu duzue. Zer azpimarratuko zenuke?

Herritarren ekarpenak jasotzea oso beharrezkoa dela. Arlo hori lantzeak gatazka konpontzeko bideak erakutsi dizkigu. Nik ez dut uste Euskal Herriko gatazka politikoa konpondu daitekeenik herritarrei bizkarra emanda, alderantziz, herritarrek gaia hausnartu eta konponbidean parte-hartu behar dute. Bide horretan, giza eskubideen errespetua eta erabakitzeak esku-bidea printzipioak aintzat hartu gabe ez dago arazo politikoari irtenbidea ematerik.

Egileetako batek “Gizartea bera da gatazka politikoa” dio bere azterketan.

Ados. Ordea, nik maila ezberdinetan jarri behar diren gatazka ikusten ditut. Arrazoi du, gizarte gatazka iraunkorrean dela interpretatzean. Baina ez gara

horretaz ari soilik. Euskal Herriak badu konpondu gabeko arazo politiko bat. Gatazka politikoa eta biolentzia bereizi behar dira, baina gatazka politikoari heldu behar zaio erro-errotik.

Ezker abertzalearen partaidetzarik gabe posible ote?

Ezker abertzalearen lege kanporatzea astakeria demokratiko handia da. ETaren biolentziaren auzia konpontzeko ezker abertzalea sistema demokratikora ekarraz behar da, ez sistema demokratikotik kanporatu. Ezker abertzaleak ez duela ezer ekartzeko pentsatzeak konponbide politikotik urruntzen gaitu. Ez dut uste ETarekin bide horretatik amaitzea posiblea denik. Gainera bide horrek demokrazia sistema ahultzen du. ETarekin bukatzeko bidea gure sistema demokratikoa indartzea da. Eta sistema demokratikoa indartzeko ezker abertzaleak barruan egon behar du.

Arnaldo Otegi eta Rafa Diezen atxilotetak nola interpretatu dituzu?

Ezker abertzaleko politikari hauek ETaren biolentziarekin amaitzeko borondatea dutela uste dut, bide politiko eta demokratikoetatik lan egiteko saiatzen ari direla. Atxilotetak eta haren lana moztea kaltegarria da. Ez da ETarekin amaitzeko bidea.

PSOEn ustez sinesgarritasuna galdu dute.

Nire ustez, aldiz, Otegi eta Diezek bide demokratikoen aldeko eta beste ziklo politiko bat irekitzearen aldeko apustua egin dute, ETarik gabeko zikloa. Hori gauza jakina da. Garbi dena da, ETA indarrean dagoen bitartean ezker abertzaleak oso zaila duela politika egitea. Beste jokaleku batera pasatzeko norbaitek lan egin behar du, eta egin behar da ere ezker abertzalearen barrutik, kanpotik ezin da. Lan hori egiten ari direnak kartzelara eramatea noren kalterako da? Herriaren kalterako.

lantzeko hausnarketa eskatzen du. Komunikazio hori zein baloreek gidatua izan behar duten ezagutzeko azterketa sakonagoa egin behar dugu.

Alegia...

Bada, ez dugu arazo hau konponduko pentsatzen badugu herritarren parte-hartzeko programak martxan jarrita konponduko dela. Hori bidea da, baina sakondu egin behar da. Gure arazoa oso sakona da: herritarren eta erakundeak zuzentzen dituzten artean eten bat dago. Lotura hori berreskuratzeko modua bilatu behar dugu denon artean.

Mendebaldeko demokrazietan bi esparru daude: esfera “zaharra” eta “berria”. Tokian tokiko esparrurantz itzultzeko eta esparru globalerantz joateko borondateak. Testuinguru horretan, herritarren inplikazioa eraldatzen ari da, antza.

Liburuaren arlo hori oso interesgarria da. Herritarren eta politikariaren arteko komunikazioaren harreman

esferak biderkatu dira. Batetik, gu espazio berri batean mugitzen ari gara. Dagoeneko ez gara mugitzen ari esparru lokalean bakarrik, espazio nazionalen, estatalean eta globalean ere mugitzen ari gara. Herritarrak espazio ezberdinetara sartu dira, eta espazio horietan sartzeko bitartekariak anitzak dira, sartzeko moduak askotarikoak dira, teknologia berrien bitartez, adibidez. Esfera berri horietan sartzeko ahalegin berria egin behar du herritarrak, eta erakundeek ere ahalegina egin behar dute herritarra inplikatzeko.

Liburuan hainbat ekimenen inguruko esperientziak agertzen dira halaber.

Beste lurralde historikoetako –Katalunian, kasu– Frantziako edota Europako zenbait herrialdeetako esperientziak dira. Gu ez gara zerotik abiatu, gure inguruan egiten ari denari arreta jarri diogu. Horrek herritarren partaidetza aberasten du, aberasten ditu politikaria, erakundeak, eta ikaragarri aberasten

ditu herritarren eta erakundearen arteko komunikazio prozesua. Oraindik ez daukagu ohitura gehiegirik. Ikasketa prozesua da, baina atzerabiderik ez duen bidea da. Demokrazian sakondu nahi baldin badugu herritarren parte-hartzean sakontzea ezinbestekoa da.

Praktikara eramatea da kontua.

Bai. Foru Aldundiak hiru esperientzia mota landu ditu dagoeneko. Batetik, herritarren partaidetza egitasmoa abian da, hogei udalerrirako programa horretan sartu dira. Bestetik, ahalegin handia egiten ari gara herritarren parte-hartzeko formakuntzan. Eta hirugarrenik: Aldundian bertan esperientzia pilotuak indarrean ditugu herritarren parte-hartzea sustatzeko. Hiru esperientzia hauek sustatu ondoren, foru arau berri bat proposatu nahi dugu Batzar Nagusietan, gobernantza eredua indartzeko eta bereziki herritarren eta erakundearen arteko komunikazioa sustatzeko. ■